



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

XI. legegintzaldia

Iruña, 2026ko ekainaren 23a

68. ZK.

A U R K I B I D E A

B SAILA:

Foru-lege proposamenak:

—11-26/PRO-00013. Foru-lege proposamena, Sozietateen gaineko Zergari buruzko abenduaren 28ko 26/2026 Foru Legearen 53. artikulua aldatzea xede duena. Irene Royo Ortín andreak aurkeztu du (3. or.).

E SAILA:

Interpelazioak, mozioak eta adierazpen politikoak:

—11-26/MOC-00063. Erabakia, zeinaren bidez Kultura, Kirol eta Turismo Departamentua premiatzen baita *matchfunding*-eko deialdi pilotu bat sor dezan 2027an. ultura, Kirol eta Turismo Batzordeak onetsi du (5. or.).

11-26/MOC-00079. Erabakia, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita behar diren erregelamenduzko lege-neurriak edo neurri exekutiboak bultzatzen dituzan luzamendu integral bat ezartze aldera gure lurraldean biometanizazio- edo biogas-plantak instalatzeari dagokionez, arau-ekosistema bermatzaile bat izan arte. Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Batzordeak onetsi du (5. or.).

—11-26/MOC-00072. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernu Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentua premiatzen baita proiektu pilotu bat garatu dezan Iruñeko eta Tuterako udal-merkatuetan supermerkatu publiko bana jartzeko. Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Batzordeak ezetsi du (6. or.).

—11-26/DEC-00030. Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak Dravet-en sindromea duten pertsonetikiko aitortza eta elkartasuna adierazten baitu. Eledunen Batzarrak onetsi du (6. or.).

F SAILA:

Galderak:

—11-26/PES-00192. Galdera, 11-25/MOC-00171 mozioa betetzearren Hezkuntza Departamentuak egindako jarduketei buruzkoa. Isabel Aramburu Bergua andreak egin du (7. or.).

—11-26/PES-00193. Galdera, Nafarroako errepubliketan hartz bat ikusi ostean hartutako neurriei buruzkoa. Félix Zapatero Soria jaunak egin du (7. or.).

—11-26/PES-00194. Galdera, jakiteko ea zer arau-jarduketa egingen den Europako Next Generation funts bete gabeak itzulketaren prozedura arautzeko. Ángel Ansa Echeagaray jaunak egin du (8. or.).

- 11-26/PES-00195. Galdera, Nafarroako Foru Komunitateko bioetika-batzordearen 2026ko ekaineko txostenean egiten diren baieztapenei buruzkoa. Mario Fabo Calero jaunak egin du (9. or.).
- 11-26/PES-00196. Galdera, O-NOZen fitxatzeari eta gehiegizko orduei buruzkoa. Leticia San Martín Rodríguez andreak egin du (10. or.).

G SAILA:**Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:**

- 11-26/ELCR-00003. Nafarroako Enpresa Korporazio Publikoa, SMP izeneko sozietateko Administrazio Kontseilurako Nafarroako Parlamentuak izendatu beharreko hiru kideak hautatzea. Hautagaitzak aldarrikatzea (11. or.).

B saila:
FORU-LEGE PROPOSAMENAK

11-26/PRO-00013. Foru-lege proposamena, Sozietateen gaineko Zergari buruzko abenduaren 28ko 26/2026 Foru Legearen 53. artikulua aldatzea xede duena

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2026ko ekainaren 22an egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobe-tzeari buruzko Lege Organikoaren 19.1.b) artikulua aitortzen dien legegintza-ekimena erabiliz, Irene Royo Ortín andreak Sozietateen gaineko Zergari buruzko abenduaren 28ko 26/2026 Foru Legearen 53. artikulua aldatzea xede duen foru-lege proposa-mena aurkeztu du.

Hori horrela, Legebiltzarreko Erregelamenduko 168. eta 179. artikuluetan ezarritakoarekin bat, Eledunen Batzarrarekin adostu ondoren, honako hau ERABAKITZEN DA:

1. Agintzea Sozietateen gaineko Zergari buruzko abenduaren 28ko 26/2026 Foru Legearen 53. artikulua aldatzea xede duen foru-lege proposame-na Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin.

2. Foru-lege proposamen hori Nafarroako Gobernuari igortzea, Erregelamenduko 168. artiku-luan ezarritako ondorioetarako.

3. Foru-lege proposamen hori irakurketa baka-rreko prozeduraren bidez izapidetzea.

Zuzenketak aurkezteko epe bat irekitzea, ezta-baidari ekiteko Osoko Bilkuraren egunaren aurreko-aren 12:00etan bukatuko dena. Zuzenketak Legebil-tzarreko Mahaiari aurkeztu beharko zaizkio.

Iruñean, 2026ko ekainaren 22an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

Foru-lege proposamena, Sozietateen gaineko Zergari buruzko abenduaren 28ko 26/2026 Foru Legearen 53. artikulua aldatzea xede duena

ZIOEN AZALPENA

Sozietateen gaineko Zergari buruzko abendua-ren 28ko Foru Legeak arautzen du, besteak beste, zergadunei aplikagarri zaien gutxieneko tributazioa, gastu publikoei eusteko ekarpen efektibo bat bermatze aldera.

Alabaina, gutxieneko tributazio horren egungo osaerak muga gehigarri bat du, 53.2 artikulua- ren 4. ordinalean aurreikusia, zeinak zerga-kenkari jakin batzuen aplikazio efektiboa mugatzen baitu; berezi-ki, inbertsioekin, ikus-entzunezko ekoizpenarekin eta ikerketa, garapen eta berrikuntza teknologikoko jardurekin lotutakoena.

Muga hori pizgarri-kentzaile suerta liteke inber-tzio produktiboak eta berrikuntza-jarduerak egitea- ren ikuspegitik, murriztu egiten baitu pizgarri fiskalen eraginkortasuna, nahiz eta hain zuzen ere horiek enpresa-lehiakortasuna, ekonomiaren moderniza- zioa eta hazkunde jasagarria sustatzeko tresna gisa dauden ezarrita ordenamenduan bertan.

Testuinguru horretan, foru-lege proposamen honen xedea da muga hori kentzea, areagotze aldera enpresek legez ezarrita dauden kenkari fis- kalak osoki aplikatzeko duten ahalmena, halatan inbertsio-giroa hobeturik eta garapen ekonomioa faboraturik.

Neurri hori bat dator jarduera ekonomiko estra- tegikoen neutraltasun-, efizientzia- eta sustapen- printzipioekin, eta, aldi berean, gutxieneko tributa- zio bati eusten dio, baina pizgarri fiskalen norainokoa mugatzen duten murriztapen gehiga- rriak desagerraraziz.

Horregatik guztiagatik, moldatu egiten da 26/2016 Foru Legearen 53.2 artikulua, haren 4. ordinala kenduta.

Artikulu bakarra. Aldatu egiten da Sozietateen gaineko Zergari buruzko abenduaren 28ko 26/2016 Foru Legearen 53. artikulua.

2026ko urtarrilaren 1etik aurrera hasten diren zergaldietarako eraginez, aldatu egiten da Sozietateen gaineko Zergari buruzko abenduaren 28ko 26/2016 Foru Legearen 53. artikulua 2. apartatua, zeinak honako testu hau izanen baitu aurrerantzean:

“2. Gutxieneko tributazioaren zenbatekoa zehazteko, honela jokatuko da:

1. Kuotan aplikatutako hobariak karga-tasaren artean zatituta ateratzen den adina minoratuko da likidazio-oinarria, ekitaldian aplikaturik.

2. Lortutako zenbatekoaren gainean ehuneko hauek aplikatuko dira:

a) 51.1.a) artikuluan ezarritako karga-tasaren arabera tributatzen duten zergadunen kasuan, % 18.

b) 51.1.b) artikuluko lehen paragrafoan edo 51.2 artikuluan ezarritako karga-tasaren arabera tributatzen duten zergadunen kasuan, % 16.

c) 51.1.b) artikuluko bigarren paragrafoan ezarritako karga-tasaren arabera tributatzen duten zergadunen kasuan, % 13.

3. Arestiko eragiketaren emaitzari, kasua bada, honako zenbateko hauek minoratuko zaizkio:

a) Ekitaldian aplikatutako kenkariak, nazioarteko zergapetze bikoitza galarazteko.

b) Produkzio zinematografikoetan eta ikus-entzunezko serieetan egindako inbertsioengatiko eta parte hartzeagatiko kenkariak, 65. eta 65. bis artikuluetan arautuak.

c) 61. eta 62. artikuluetan araututako ikerketa, garapen eta berrikuntza teknologikoko jarduerak egiteagatiko edo berorietan parte hartzeagatiko kenkarien % 50. Zergadunek 51.1.b) edo 51.2 artikuluan ezarritako karga-tasaren arabera tributatzen badute, aipatu ehuneko % 100 izanen da.

Arestiko b) eta c) letretan ezarritakoaren ondorioetarako, ekitaldian sortutako kenkariak eta aurreko ekitaldian aplikatu gabe gelditu direnak konputatu egingen dira. Gutxieneko tributazioaren zenbatekoa zehazteko kontuan hartzen diren kenkariak zergaldian aplikatu beharko dira”.

Azken xedapen bakarra. Indarra hartzea.

Foru-lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean hartuko du indarra, eta 2026ko urtarrilaren 1etik aurrera hasten diren zergaldiei aplikatuko zaie.

E saila:
INTERPELAZIOAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

11-26/MOC-00063. Erabakia, zeinaren bidez Kultura, Kirol eta Turismo Departamentua premiatzen baita *matchfunding*-eko deialdi pilotu bat sor dezan 2027an

ULTURA, KIROL ETA TURISMO BATZORDEAK ONETSI DU

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125. artikuluan ezarritakoa betez, agintzen da Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Nafarroako Parlamentuko Kultura, Kirol eta Turismo Batzordeak 2026ko ekainaren 16an onetsitako erabakia, zeinaren bidez zeinaren bidez Kultura, Kirol eta Turismo Departamentua premiatzen baita

matchfunding-eko deialdi pilotu bat sor dezan 2027an. Hona testua:

“Nafarroako Parlamentuak Kultura, Kirol eta Turismo Departamentua premiatzen du 2027an *matchfunding*-eko deialdi pilotu bat sor dezan”.

Iruñean, 2026ko ekainaren 16an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

11-26/MOC-00079. Erabakia, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita behar diren erregelamenduzko lege-neurriak edo neurri exekutiboak bultzatuz ditzan luzamendu integral bat ezartze aldera gure lurraldean biometanizazio- edo biogas-plantak instalatzeari dagokionez, arau-ekosistema bermatzaile bat izan arte

LANDA GARAPENEN ETA INGURUMENEN BATZORDEAK ONETSI DU

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125. artikuluan ezarritakoa betez, agintzen da Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Batzordeak 2026ko ekainaren 16an onetsitako erabakia, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita behar diren erregelamenduzko lege-neurriak edo neurri exekutiboak bultzatuz ditzan luzamendu integral bat ezartze aldera gure lurraldean biometanizazio- edo biogas-plantak instalatzeari dagokionez, arau-ekosistema bermatzaile bat izan arte. Hona testua:

lamenduzko lege-neurriak edo neurri exekutiboak bultzatuz ditzan luzamendu integral bat ezartze aldera gure lurraldean biometanizazio- edo biogas-plantak instalatzeari dagokionez, arau-ekosistema bermatzaile bat izan arte. Ekosistema horretan nekazaritza eta abeltzaintzako sektoreak, herritarrek eta ukitutako udalerriek parte hartuko dute, eta ahalbidetuko du bideratzea hedapen ordenatua, jasagarria eta krisi klimatikoarekin, biodibertsitate faltarekin eta baliabideen gehiegizko kontsumoarekin bat datorrena”.

“Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuaren Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentua premiatzen du behar diren errege-

Iruñean, 2026ko ekainaren 16an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

11-26/MOC-00072. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernuko Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentua premiatzen baita proiektu pilotu bat garatu dezan Iruñeko eta Tuterako udal-merkatuetan supermerkatu publiko bana jartzeko

LANDA GARAPENEN ETA INGURUMENEN BATZORDEAK EZETSI DU

Nafarroako Parlamentuko Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Batzordeak, 2026ko apirilaren 24an egindako bilkuran, ezetsi egin du Carlos Guzmán Pérez jaunak aurkeztutako mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernuko Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentua premiatzen baita proiektu pilotu bat garatu dezan Iruñeko eta Tuterako

ko udal-merkatuetan supermerkatu publiko bana jartzeko. Mozioa 2026ko apirilaren 24ko 41. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2026ko ekainaren 17an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

11-26/DEC-00030. Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak Dravet-en sindromea duten pertsonetikiko aitortza eta elkartasuna adierazten baitu

ELEDUNEN BATZARRAK ONETSI DU

Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak, 2026ko ekainaren 22an egindako bilkuran, honako adierazpen hau onetsi zuen:

“1. Dravet-en sindromea duten pertsonetikiko eta haien familiekiko aitortza eta elkartasuna adierazten du eta pazienteen elkarrekin eta, bereziki, Dravet-en Sindromea Fundazioak egiten duten lana babesten du.

2. Draveten Sindromearen Nazioarteko Eguna ospakizunarekin eta gaixotasun hori eta beste gaixotasun arraro batzuk ikusarazteko ekimenekin bat egiten du.

3. Nafarroako Gobernuak premiatzen du Draveten sindromearen eta beste epilepsia arraro batzuen diagnostiko goiztiarra eta ekitatiboa susta dezan, honako hauek baliatuta: oinarritzko osasunlaguntzatik, pediatriatik eta larrialdietatik deribatzen diren zirkuitu azkarrak, proba genetikoetarako eta aholkularitza genetikorako sarbide arin eta homogeneoa, eta familientzako osasun-arreta indartzea, kasuen kudeatzailearen figuraren bidez eta Nafarroako Gaixotasun Arraroen Erregistroaren bidez, plangintza-tresna gisa.

4. Nafarroako Gobernuak premiatzen du komorbiditateak eta neurogarapena jorratuko dituen arreta integraleko eta diziplina anitzeko eredu bat berma dezan, bai eta pediatriako arretaren eta helduen arretaren arteko trantsizio ordenatu bat ere, helduaroko bizitzan jarraitutasuna ziurtatze aldera.

5. Nafarroako Gobernuak premiatzen du osasunaren, hezkuntzaren eta gizarte-zerbitzuen arloen arteko koordinazio soziosanitarioa indartu dezan eta arretarako sarbide ekitatiboa berma dezan.

6. Nafarroako Gobernuak premiatzen du susta ditzan osasun-arloko profesionalen prestakuntza, kontzientziazio-kanpainak –batez ere ekainaren 23aren inguruan eta Draveten Sindromearen Fundazioarekin lankidetzan– eta gaixotasun arraroen eta jatorri genetikoko epilepsien ikerketarako laguntza.

7. Gaixotasun arraroak artatzeko politikekiko konpromisoa eta gaixoak eta haien familiak ordezkatzeko dituzten erakundeekin lankidetzaren egonkorra mantentzeko konpromisoa berresten ditu.

Iruñean, 2026ko ekainaren 22an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

F saila:
GALDERAK

11-26/PES-00192. Galdera, 11-25/MOC-00171 mozioa betetzearren Hezkuntza Departamentuak egindako jarduketei buruzkoa*ISABEL ARAMBURU BERGUA ANDREAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2026ko ekainaren 22an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Isabel Aramburu Bergua andreak egindako galdera, 11-25/MOC-00171 mozioa betetzearren Hezkuntza Departamentuak egindako jarduketei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2026ko ekainaren 22an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Geroa Bai talde parlamentarioari atxikitako foru-parlamentari Isabel Aramburu Bergua andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako galdera hau egiten dio Nafarroako Gobernuaren Hezkuntzako kontseilariari, idatziz erantzun diezaion:

Hezkuntza Departamentuak zer egin du 11-25/MOC-171 mozioa, zeina Nafarroako Parlamentuak 2026ko urtarrilaren 22an egindako Osoko Bilkuran eztabaidatu eta onetsi baitzen, betetzeko?

Iruñean, 2026ko ekainaren 10ean

Foru-parlamentaria: Isabel Aramburu Bergua

11-26/PES-00193. Galdera, Nafarroako errepideetan hartz bat ikusi ostean hartutako neurriei buruzkoa*FÉLIX ZAPATERO SORIA JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2026ko ekainaren 22an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Félix Zapatero Soria jaunak egindako galdera, Nafarroako errepideetan hartz bat ikusi ostean hartutako neurriei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2026ko ekainaren 22an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikita dagoen Félix Zapatero Soria jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezartzen denaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

Nafarroako Gobernuak uste du behar adina baliabide daukala bermatzeko Nafarroako Pirinioetan hartz arreearen presentzia gero eta handiagoaren eta bizilagunen nahiz bisitarien segurtasun

naren eta abeltzaintza estentsiboaren iraupenaren arteko bizikidetzatza? Behar adina baliabide baldin badauka, zeintzuk dira baliabide horiek?

Nafarroako errepideetan hartz bat ikusi ostean neurririk hartu al du Nafarroako Gobernuak, edo ba al du jarduketa-protokolorik hartzak errepideetan, jendea bizi den guneeetan edo jendea ibiltzen den eremuetan agertzen direnerako?

Iruñean, 2026ko ekainaren 15ean

Foru-parlamentaria: Félix Zapatero Soria

11-26/PES-00194. Galdera, jakiteko ea zer arau-jarduketa eginen den Europako Next Generation funts bete gabeak itzulketa-prozedura arautzeko

ÁNGEL ANSA ECHEGARAY JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2026ko ekainaren 22an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ángel Ansa Echegaray jaunak egindako galdera, jakiteko ea zer arau-jarduketa eginen den Europako Next Generation funts bete gabeak itzulketa-prozedura arautzeko.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2026ko ekainaren 22an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikita dagoen Ángel Ansa Echegaray jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezartzen denaren babesean, honako galdera hauek aurkezten ditu, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun ditzan:

sean, honako galdera hauek aurkezten ditu, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun ditzan:

Ekainaren 10ean, HAC/580/2026 Agindua argitaratu zen Estatuko Aldizkari Ofizialean, Europako Next Generation funtsak betetzeko epea heldu den abuztuaren 31n bukatzen delako (Ogasuneko ministroaren ekainaren 9ko agindu horren bidez, Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoaren kargura jasotako funtsak itzultzeko prozedura arautzen da).

1. Zer arau-jarduketa egin behar du Nafarroako Gobernuak Europako Next Generation funts bete gabeen itzulketa-prozedura arautzeko, baldin eta ezarritako epean bete ez badira?

2. Zer aurreikuspen darabil Nafarroako Gobernuak bete ez diren Europako Next Generation funtsei dagokienez, itzuli egin beharko baitira?

3. Zein izanen litzateke aurreikuspena, departamentuen arabera xehakaturik?

Iruñean, 2026ko ekainaren 17an

Foru-parlamentaria: Ángel Ansa Echegaray

11-26/PES-00195. Galdera, Nafarroako Foru Komunitateko bioetika-batzordearen 2026ko ekaineko txostenean egiten diren baieztapenei buruzkoa

MARIO FABO CALERO JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2026ko ekainaren 22an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Mario Fabo Calero jaunak egindako galdera, Nafarroako Foru Komunitateko bioetika-batzordearen 2026ko ekaineko txostenean egiten diren baieztapenei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agintakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2026ko ekainaren 22an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikita dagoen Mario Fabo Calero jaunak, Legebiltzarren Erregelamenduan ezartzen denaren babesean, idatziz erantzuteko honako galdera hauek egiten ditu:

Nafarroako Foru Komunitateko bioetika-batzordeak "Bidaiderik gabeko adingabeen arretari buruzko analisi etikoa: Martzillako Behaketa eta Harrera Zentroaren kasua" izeneko txostena egin du.

Txosten horren 5. orrialdeko azken paragrafoan honako hau adierazten da:

«Zentroa ireki zenetik, behin eta berriz gertatu dira ihesak eta bizikidetzaren arloko gorabeherak behaketa eta harrera zentroan bertan nahiz espazio publikoetan (udal-igerilekua, tabernak, patioak eta kaleak). Horietako batzuk hedabideek hauspotu zituzten, ikuspegi lerratu eta sentsazionalista batetik abiatuta, eta sare sozialek ere elikatu zuten hori. Kasu jakin batzuetan egiaztatu zen gatazkak ez zituztela adingabeek hasi, baizik eta nahita egindako kanpo-probokazioei erantzun zietela».

Horregatik guztiagatik:

- Zeintzuk izan ziren, zehazki, Marcillako behaketa eta harrera zentroan bizikidetzaz-istiluak eragin zituzten kanpo-probokazio horiek?

- Noiz gertatu ziren nahita egindako kanpo-probokazio horiek?

- Zer gorabehera izan ziren nahita egindako kanpo-probokazio horien ondorioz?

- Nortzuk izan ziren nahita egindako kanpo-probokazio horien arduradunak?

- Nola egiaztatu da nahita egindako kanpo-probokazio horiek gertatu direla?

Iruñean, 2026ko ekainaren 17an

Foru-parlamentaria: Mario Fabo Calero

11-26/PES-00196. Galdera, O-NOZen fitxatzeari eta gehiegizko orduetarako buruzkoa

LETICIA SAN MARTÍN RODRÍGUEZ ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2026ko ekainaren 22an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Leticia San Martín Rodríguez andreak egindako galdera, O-NOZen fitxatzeari eta gehiegizko orduetarako buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agintu-takoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2026ko ekainaren 22an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikita dagoen Leticia San Martín Rodríguez andreak, Parlamentuko Erregelamenduan ezartzen denaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

O-NOZen ezarriko den fitxatzeko sistemari dagokionez, eta osasun-zentroetan egiten ari den programa-pilotuari dagokionez, nola neurtuko dira gehiegizko orduak? Zer irizpide ezarri dira gehiegizko ordu horiek zehazteko? Gehiegizko ordu guztiak neurtuko dituzue ala kopuru jakin batera iristean ez dira gehiago neurtuko? Nola konpentsatuko dira egindako gehiegizko orduak?

Iruñean, 2026ko ekainaren 18an

Foru-parlamentaria: Leticia San Martín Rodríguez

G saila:
TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA

11-26/ELCR-00003. Nafarroako Enpresa Korporazio Publikoa, SMP izeneko sozietateko Administrazio Kontseilurako Nafarroako Parlamentuak izendatu beharreko hiru kideak hautatzea

HAUTAGAITZAK ALDARRIKATZEA

2026ko ekainaren 22an egindako bilkuran, Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako Enpresa Korporazio Publikoa, SMPren Administrazio Kontseilurako Nafarroako Parlamentuak izendatu beharreko hiru kideak hautatzeko arauekin bat, zeinak 2026ko ekainaren 15eko Mahaiko erabakiaren bidez onetsi baitziren (65. NPAO, 2026-06-16koa), honako hau ERABAKITZEN DA:

1. Nafarroako Enpresa Korporazio Publikoa, SLren Administrazio Kontseilurako Nafarroako Parlamentuak proposatu beharreko hiru kideen hauta-

ketarako aurkeztutako hautagaitzak aldarrikatzea. Hona hautagaiak:

– Ainhoa Unzu Garate, Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioak proposatuta.

– Asier Baztan Beperet jauna, Geroa Bai talde parlamentarioak proposatuta.

– Juan Carlos Longás García jauna, EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioak proposatuta.

2. Erabaki hau talde parlamentarioen eledunei jakinaraztea eta Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

Iruñean, 2026ko ekainaren 22an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias
